

Erreferentziako txartela:
Finantza-txartelen erraztasun guztiakin eta gainera...

Bidaia-asistentziako doako aseguruua abantailak era guztietako 2.000 establezimendutan.

Deskontuak mundu osoan izateko giltza.

Kontsultatu BBK26 gida, www.bbk.es orrian

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA


beitzen

2006ko iraila
91. zkia. Doan

Abasolo txakolindegia
Munduko Emakumeak
The Cherry Boppers

Angel Zelaieta

"Euskal prentsan polemika falta da"





Organo fabrika zaharra

Santutxu aldean organo fabrika dotore hori egon zan XX. mendearen hasieran. Nuestra Señora de Begoña eukan izena. Karmelo eta Luis Luciano Bonaparte kaleak alkartzen diran lekuan egoan. Esan beharrik ez dago, bertan organoak egiten ebezan. Ugazaba Juan Dourte izan zan eta maisuetako bat Francisco Hebing. Leku askotarako fabrikatu ebezan organoak, Euskal Herriko nahi atzerriko bezeroentzat.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Abasolo txakolindegia	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta euskerea ..	8	▶ Saibi	25
▶ Munduko Emakumeak	10	▶ Hezkuntza	26
▶ The Cherrys Boppers	12	▶ Mendizaleen Txokoa	28
▶ Elkarrizketa: Anjel Zelaieta	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Lehenengo egunien ezagun batek esaosten Azkarai ingeruen osteratxue eitten ebilela hango aldea baten mahatsa topau zauela. Askok pentsau daurie Mahatserridxen uzena mahatsagaz galdu zala, ta honeik Bertonekoak kontue atzera ekarri zeurienien inor ez zala akordau be ingo. Ba, akordau zieren batzuk, ta Mahatseridxen ondiñokarren dekogu mahatsa. Gitxi, baie egon dago. Ondiñokarren lotuten direz Zelaietan modukoak berbarako. Azkanengo mahastidxe hor dagoan modure inor dekogu kontateko ta akordazo eitteko hamen inoz zer ibili dan. Da seguritik harek botako doskuz -berbetan jakin ezkerroan- azkanengo mahastidxe botako leuskiguzanan antzerakoak. Asko joan eta asko etorri ikusi daurien guztidxe lez.

Begoñeko kanposantue ixiko dauriela be ekarri daurie. Harek be zeozer esan gure ixingo dosku. Zarratute, aspaldidxen dago zarratute. Klienterik behintzet ez deu euki. Zarratutiek ez dakitt zer esan gure dauen. Tapau?

Kendu? Etzie egin ganetik? Castañoseko merkatue lez disfrazau? Ez da fazile izango han inoz mahatsa ez urtetie.

Abasoloko txakolinek be mahatsan gustue dakasku. Han dago barriz, jausiko dala dirudi, baie hantxe! Eskolatan euskeraz ikisten hasiko direzen umiek horreik guztidxe edo Fiken juntaten direzen horreik mundu guztiko androk zapatan azpittik mahatsa garratzen gustue dabilela jakitteko modua deukie ondiñokarren. Badaukie nok erakutsi ondiñokarren. Baie mahatsa binagre eindde dagoala pentsaten daurie askok, ta ha txakoline ezin dala atzera etorri. Lastima! Ze, ingo neuke betek urtengo dauela mahastitxun bat ainbaten.

Munduen ziherr ibili direzen asko ekarriko doskuez berbetan aurton. Asko eukingo daurie hareik be esateko. Azkanengo mahastidxeri be inoz entzun ein biherko litxakie.

GURE BAZTERRAK

JULIAN GAJARRE KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Txurdinaga izeneko auzoan topatu geinke Julian Gaiarre kale luzea; izan be, etorbide luzea dogu, Ibaizabal errekatik hurrean, Bilbo eta Galdakaoren arteko errepidearen ganean, Zumalakarregi etorbidearen errebueltan, hasi, Otxarkoagarantz joan eta poligonoko udaltegian amaitzen dana; hau da, Circo Amateur del Club Deportivo hasi eta Langaran kalean amaitzen da. 1980. urtea arte, kale honen izena José Luis Meler Simón zan, Francoren armadako guardia zaharrekoa izan eta 1936. urtean hil zana omenez.

Julian Gaiarre Garjon nafar ahots-zoli ospetsua izan zan, 1844ko urtarrilaren 12an jaio zan Erronkarin, eta 1889ko abenduaren 12an hil zan Madrilan. Sendi txiro baten jaio zan, eta hamalau urte zituala Iruñera joan zan, oihalen

denda baten ikastun legez ekin utsola; hortik burdinola batera joango zan beharrean.

Abesbatza baten emon eban izena, eta handik gitxira lehen ahots-zoli izentau eben. Hilarion Eslabak, abade eta musikagile zanak, arreta jarri eutsen haren ahotsaren kalidadeagaitik, eta haren gastuak ordaindu eutsotan, Madrilan ikasi eian. Harrezkero, beka bat jadetsi eban Italian ikasteko Lamperti musika-irakasleagaz. Beraren ahotsa itzelezkoa izan ei zan, eta mundu osoa liluratu eban XIX. gizaldiko 70eko eta 80ko hamarkadetan. Bilbok badau haren antze eta nortasunaren gomuta ona, ezik 1882. urtean, Gaiarrek abestu zituan 20 operan segituan uriko antzokian. Aurrekoa zala eta, Bilboko Udalak haren izenean bataiatu eban uriko Iturribide kalean egon zan antzokia; hori ezeze, bilbotar batzuk izan ziran haren lagunik onenetakoak, bai eta Bilbon bizi zan eskribau errioxar bat bere, Julio Enciso eritxona.

1889ko abenduaren 8an Madrilgo Errege Antzokian iharduan abesten *Harribitxien arrantzaleak*; bat-batean, agertokian konortea galdu eban, eta handik lau egunera hil egin zan.

GOTZON LOBERA REVILLA


ABASOLO TXAKOLINDEGIA, ARRAZAKO AZKENA

Uribarri gaineko txakolindegi herrikoia
desageritze zorian dago

Abasolo txakolindegia Lezamako Trenbide Zaharrean dago, zuhaitz batzuen gerizan. Desagertutako arraza batekoa da, txakolindegi herrikoien azken alea. Mahasti artean sortu zen eta etxeen artean itota galduko da. Bertan etxeak egiteko saldu egin dute.

Testua: Itxaso Perez.

Argazkiak: Iñigo Azkona eta Itxaso Perez.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Dabi Piedra,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

2006ko iraila - 91. zkia.

Honelako traza hartu diogu barrura goazenean: iluntasuna, egurrezko zoru zaharra, edadeko jendea kartetan... antzinako tasken tankera berdintsua. Sentsazio atsegina. Etxekoa, hurbila. Ia ehun urteak ez dira alferrik igaro. Izan ere, 1913an eraiki zuten, eta gerrari ere aurre egin ostean, desagertzekotan dago, etxe berriak egiteko sakrifikatuta. Barraren beste aldetik Jose Giron dok kezkatu-rik begiratzen dio etorkizun hurbilari antzinakotan gertatutakoak kontatzen dituen bitartean.

Hiru solairuetako harrizko etxea da, ohiko materialez egina dirudien arren. Harria Artxanda bertako harrobitik ekarri zuten. Harrobia txakolindegitik apur bat gorago ikus daiteke.

Artxandako aldatsak mahastiz beteta zeuden. Abasolokoek erosi eta barrietan saltzen zuten, ez gaur egun bezala, dena botiletan doana. Garai hartan garaiko txakolina beste-

asko. Baina denak ziren sasoikoak.

Joserengururasoek, Manuel eta Amelia, negozioari heldu zioten duela 74 urte, Josek berak urte bi zituenean (1932). Berak esanda, gaur egun Vivien- das de Vizcayaren etxaldea dagoen orubea mahastia zen. Uribarriko Sirimiri tabernaren aurrean zegoen baserri baten (Panaderoa) txakolin bikaina egiten ei zuten. Abasolon, aldiz, sasoiari sasoiko txakolina eta urtean zehar batez ere ardoa saltzen zuten.

Baina txakolinaz, ardoaz eta mostoaz gain garagardoa ere saltzen zuten, Salbeko Garagar- dotegian (lantegian) egin-



kanpoko hormak izan ziren. Berriz eraiki behar izan zutenean itxura apur bat aldatu zioten. Beheko solairua etxebizitza hutsa izatetik taberna ere izatera pasa zen. Garai hartatik, aldaketa gutxi. Eraikina erdi suntsitu- ta egon zen denboran ere kanpoal- dean eraikitako behin-behineko txakolin bizi ziren eta bertan txakolina saldu ere egiten zuten.

Abasolo txakolindegia azpian sotoa dago. Bertan zeuzkaten barrikak, baita urte baten txanpinoiak ere, baina, antza, hazia kalitate gutxikoa zen eta ereiteari utzi zioten. Burdin ura darion iturria ere badago, baina ez dute erabiltzen. Garai batean, bai, ordea. Jendeak bere botikoa (ontzia) ekartzen zuten betetzeko, baina bete Josek egiten zuten, eta, benga! Sotora jaitsi behar. Nekatu zen arte! Gero, ezetz esan barik, gerran jausitako obusak apurto zuela esaten zuten... Izan ere gerran bonba asko jausi ziren bertan, bai itsasaldetik bai bes- taldetik botatzen zituztenak.

Garai bateko txarribodak gogoan dituzte Josek eta seme Javik. Txerria inguruko baserri guztietan hiltzen zuten, baita txakolindegian ere, eta merienda oparo batekin ospatzen zen. Abasolon ganadua aldameneko zelaiko kortan eduki zuten: hiru-lau

rik ez zen saltzen. Etxeko txakolina amaitutakoan, sasoiko txakolindegiek atea ixten zituzten hurrengo urtera arte. Horrela egiten zuten Montaño txakolindegia, gaur egun Uribarriko San Migel eliza dagoen lekuan zegoenak, bi edo hiru astez zabaldu eta gero, hurrengo urtera arte itxi.

Traukun Estebanen txakolindegia zegoen eta Zurbaranen Llorenterena (Etxebarria lantegiren ondoan). Otxarkoagan eta Txurdinagan ere,

dakoa. Izotza ere bertatik ekartzen zuten, bloke trinkotan. Dena dela, Josek esan duenez, "gaur egun ezin da ardoaren salmentaz bizi". Ohiturak zeharo aldatuta, txikiteorik apenas egiten da eta jendeak bestelako edariak eskatzen ditu. Lehen 500 litro asteko saltzen bazuten orain ezta bost kutxa botila ere.

Eraikina, lehen esan bezala, harrizkoa da ia osoa. Gerran obus bat etxearen atzealdean jausi eta zati handi bat bota zuten, baina batez ere

behi... Beti zegoen jendea merienda eta ardo- txo bat hartzen, baina Etxebarria lantegia zegoenean, bertako langileak kartetan egoten ziren han lanera joateko adarrak jotzen zuten arte. Orduan gauaz jendea etxera bidali behar zuten Josek, baina egun gaueko 9etarako ez dauka ia inor tabernan (teleberriak interesateagoak ote?).



Gaur egun astean zehar jendea bertan merienda hartzera hurbiltzen da, baina asteburuetan igotzen da giroa nabarmen. Betiko kazuelatxoek gain, indabak, bakailaoa... enkarguko bazkariak eta afariak ere prestatzen dituzte. Oilaskoak ere erretzen dituzte: goxo-goxoak dira eta inon baino merkeagoak.

ATHLETICEN GOLAK

Gainera, jende askok kuriositateak jota edo, Athleticen golak ospatzeko bertatik botatzen duten bolanderaz galdetzen du. Eta ez da gutxiagorako ere, leku askotatik entzuten da eta. Ohitura hori Javik hasi zuten Julen Guerreroren debut egunean (1992). Gabonetan suziriak soberan geratu eta aprobetxatzeko era ederra bilatu zuten. Harrez gero ez du gol baten hutsik egin!

Aizkolari izeneko peñak txapelke-

ta asko antolatzen zituen txakolindegian: igela, tortilla, paella, bakailaoa... Azken horretan behin 114 kazuela batu ziren, euripean gainera!. Dantzak, berbenak,... Joserengururasoek bere kamioia ekarri eta bertan musika taldeak jotzen zuten. Jaiok Urriaren 12aren inguruan ospatzen zituzten. Asteburu batean tortilla eta paella, eta hurrengoan, bakailao txapelketa. Beste jai askotan ere zerbait antolatu izan dute: txokolatada eta sutea Donibane gauean, sardina janak, gauaz kirol txapelketak, burukada lehiaketa (gogoan duzu 'aharien' laburmetraia? Ba, begitu ideia nondik atera zen...)... Uribarriko Jaietako bakailao txapelketaren babesle nagusia da.

Egun hauetan, 'Boulevard' kafetegiak atea itxiko ei dituelako zalaparta sortu denean, azken txakolindegia herrikoia zarratu aginean dago.

Noiz botako zain

Berez, txakolinaren negozioan Abasolo jauna hasi zen, baina diru guztia galdu zuen. Txakolindegitik bertatik Uribarri kaleraino doan bide aldapatsua berak zabaldu zuen, behetik autoak igoko zirelakoan. Kontua zen txakolindegia eraikina ez zegoela horretarako pentsatuta, ostatu izateko baizik. Baina dirua galdu zuenean, Udalak ondasunak bahitu eta salgai jarri zituen.

Zuluaga batek 85.000 pezeta- tan erosi zituen txakolindegia (3 etxebizitza + taberna), eta beste etxebizitza pilo bat euren lur sailekin. Zer nolako den diru gosea, pentsatzen dute txakolindegikoek. "Kiebra batez aprobetxatu ziren eta orain milioiak atera nahi dituzte bertan bizi diren bizi- tza bost axola zaiela". Informazioa ez da oso zehatza, are gehiago, Jose Giron dok esan duenez, ezkutuan ibiltzen da eraikina erosi duen Bizkai Eder enpresa eraikitzailea. Errenta nori ordaindu ere ez dakitela daude. Denetara, hamabi bloketan banatutako 47 etxebizitza eraiki nahi dituzte Lezamako Trenbide kalean.

MUNDUKO EMAKUMEAK, JATORRI ETA ESPERIENTZIA TRUKAKETA

Elkarte horrek Fika kalean dauka bere egoitza



Jatorri ezberdinetako hainbat emakumek osatzen dute Munduko Emakumeak. Elkarteak Fika kalean du egoitza. Bertan, kultura eta esperientzia erabat ezberdinak izan dituzten emakumeak biltzen dira. Hainbatentzako elkarte hau Bilbon duten famili bakarra da, bertan, laguntza, beharrezko animoak eta aisialdia eskaintzen baitiote elkarri. Aurten hogeikastaro antolatu dituzte eta urrian hasiko dira.

Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona

Munduko Emakumeak elkarteak 1990ko hamarkadaren amaieran sortu zen. Cony Carranza El Salvadorretik etorritakoa da eta heldu zenetik tinko ari da elkarte lanean. Bere esanetan "elkatea emakume talde batek osatzen dugu, gure arteko elkarlana landu eta orain arteko emakume ereduarekin erabat apurto nahi dugu (sumisoa,

iritzirik gabekoa...). Hainbat lekutako emakumeak gara, Argentinakoak, Marokokoak, Koreakoak, Kolonbiakoak, Euskal Herrikoak... guztiak elkarrekin lan egiteko modua pausoz pauso aldatzen ari gara hainbat emakumeren ekarpenari esker, bakoitzak bere ikuspuntua eman eta bata bestea-rekin ikasten dihardugu".

Astelehenero biltzen dira eta bertara hogeita hamabost bat lagun hurbiltzen dira. Hala ere, elkarte askoz gehiagok osatzen dute.

Atzerriko emakume asko biltzen dira elkarte eta Cony dioenez, "nondik gatozen alde batera utzita, zer motatako pertsonak garen da elkarte kontuan hartzen dena, beraz, adierazteko parada dugu, elkarri entzuteko, ideiak proposatzeko, bertoko berotasuna sentitzeko... biltzen gara".

Elkarte horretan atzerriko emakumeak ez dira arrotz sentitzen eta beraien talentuak ikusten eta konpartitzen dituzte. Kultura eta esperientzia trukea egiten dute Munduko Emakumeak taldekoek.

LANAK

Elkarteak Santutxuko Fika kalean du egoitza. Bertan liburutegia, areto

TAILERRAK

Hona hemen aurtengo tailerrak:

Artea eta sormena	Elkar laguntza taldea
Body dance	Umeentzako modern jazz
Oinarrizko sukaldaritza	Mudrak eta mantrak ikastaroa
Munduetako sukaldaritza	Musikoterapia
Oinarrizko arabiar kultura eta hizkuntza	Giza harremanak
Ekialdeko dantza	Erlaxazioa eta meditazioa
Sormen-idazketa	Tango ikastaroa
Dantza mexikarrak	Antzerkia
Gitarra	Yoga

nagusia, batzar gela eta lorategi polit bat dute. Cony dioenez, "lorategi honetan talde bat osatu dugu domeketan arte eta pinturan aritzeko. Izan ere, kanpotik gatozenak aste-buruetan bakardadea senti genezake eta halako ekarpenak oso preziatuak dira. Batzuetan filmak ikusteko zein hitz egiteko elkartzeko gara".

Munduko Emakumeak elkarte gizonetako ere ongi etorriak dira. Gehienak emakumeak badira ere, badago gizonik. Cony Carranzaren esanetan, "hainbat elkarterekin dugu harremana Munduko Emakumeak taldean, beraz, bata dela zein bestea dela, denek dakite zein lan egiten dugun. Nola-bait esateko bizitzeko beste modu bat bilatzen dugu, emakumearen lana eta talentuak agerian gera daitezen, eta hau egitura horizontalean egin nahi dugu, komunitatean. Ikuspuntuak kontuan hartuz ikasten ari gara, jatorri eta bizi izandako esperientzia oso ezberdinak ditugun emakumeak baikara".

Elkartean txangoak ere antolatzen dituzte. Arboledara, Arrasatera,... eta itzelezko jaialdiak ere ospatzen dituzte munduko musika eta jatekoak dastatuz. Adin guztietako emakumeak biltzen dira Fika kalean. Aurten ere tailerrak kanpo emateko, esaterako eskoletan. Irailean bertan Asturiasen egon dira elkarte bost kide "Jakintza trukea" izeneko jardunaldietan parte hartuz. Han Munduko Emakumeak taldeko ikuspuntua azaldu eta egun dagoen eredu neoliberal, indibidualista...-ren aurrean, garapenerako hezkuntza berriari buruz hitz egin dute.

Honez gain, aipatu elkarteetako hiru hilean behin aldizkari bat ere kaleratzen dute. Hainbat gai lantzen dituzte bertan eta idazleen ekarpenak, tailerrak, hausnarketak, salaketak, testigantzak... denarik argitaratzen dute. Elkarteak badu ere web orria eta hor kontsulta dezakezue zertan ari diren, mujeresdelmundobabel webgunean.



Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

MUSIKA BELTZARI OMENALDIA, THE CHERRY BOPPERS

TALDE MAHATSORRIAREN LEHENENGO DISKOAN

Jendea dantzan jartzea helburu dute 'Dressin' the puppet' lanarekin




Txefo K-Billy, Xixo Yantani, Lando S. Tone, Ignatius Johnny eta Bob Phillip Rivas dira The Cherry Boppers

tutxu auzoa baitute elkargune. Irailean, Noiz-pop diskoe-txearen eskutik, beren lehen lana

boskoteko kideak baina izen argitaratu dute, 'Dressin' the horiek ikusita bestela irudi leza- puppet', Euskal Herrian egindako keen arren, euskal taldea dira, jazz-funk estiloko lan mahatsorria hain zuzen ere, San- bakarrenetakoa

Testua: Dabi Piedra
Argazkiak: Berton

Dantza egiteko aproposak diren erritmoak sortu dituzte, jatorri beltzeko musikan oinarrituta, groove eta acid jazz ikutuarekin, edonorentzat aproposa den musika atsegin eta bizia eskainiz. Musika tresnei "ahotsak daukan maila eta duintasuna" eman nahi izan diete, taldekideen esanetan, eta soinu ezberdinen bidez komunikatu nahi izan dute, horregatik da instrumentala The Cherry Boppersen lehenengo lan hau.




'Dressin' the puppet' diskoan zazpi abesti daude eta, beraiek sortutako Potato jumpy izan ezik, gainerakoak jazz-funkaren sortzaile eta artista handi izandakoen bertsiok dira. Boskote mahatsorriaren esanetan, bertsiok lehentasuna emanez, bilduma honetan landu nahi izan duten estiloa argi definitu ahal izan dute, musika beltzean oinarritutako diskoa izan behar zela erabaki baitzuten hasieratik. "Jazz-funk garbia" bilatu dute. Bide



batez, Txefo taldekidearen hitzetan, "guretzat maisuak izan diren mito handiei omenaldia egin diegu, beraiek nahastu zizkioten funkaren doinuak jazzari, bizitasun handia emanez". Horrela, Lonnie Smith, Grant Green, James Brown eta Maceo Parkerren bertsiok bana egin dute eta Reuben Wilsonen bi. Hala ere, bertsiok libre samarrak direla nabarmendu nahi izan dute. Musika beltzaren maisu horiei egindako omenaldia biribiltzeko, James Brown soulman handiaren abestiari egin dioten moldaketan, haren zenbait esaldi ezagun txertatu dituzte. Salbuespen horrekin, diskoaren gainontzeko guztia letrarik gabekoa da.

Lan originala eta gozagarria da, dudarik gabe, baina era berean



arrisku handia hartu zuen diskoe-txeak hain erritmo ezohikoekin, eta are gehiago kontuan izanda The Cherry Boppersek ez zuela aurretik beste diskorik argitaratu, ezta make-tarik ere. Beren kontura egindako

grabaketa apal batzuk baino ez zeuzkaten diskoa kalera irten aurretik. Horregatik, boskotea pozik dago Noiz-pop disketeak beren alde eta, orokorrean, musika estilo berritzaileen alde egindako apustuarekin.

URTE BI

The Cherry Boppers orain dela urte bi inguru sortu zen, Txefo K-Billy eta Xixo santutxuarren ideia batetik abiatuta. Bateria jolea eta gitarra dira, hurrenez hurren. Laster, Lando Txurdiragako baxua batu zitzairen, eta ondoren etorri ziren Ignatius Johnny bilbotarra, teklatuan aritzen dena; eta, azkenik, saxoa, txirula eta perkusiorako Bob Phillip Rivas kuba-tarra. Urtebete inguru aritu ziren elkarrekin entsegutan, abesti berriak sortzen eta beren estiloa finkatzen,

Agapi

Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko herriko taberna Iturriaga 96.

Gosari bereziak:
Katea + pintxoak 1,50 €.

Euskal Herria
AURRERA!!

Garaizar

JESUS GALINDEZ, N.º 10
Tlf: 94 478 02 25 GARAIZAR - BILBO

ERTON DUGU

ERTON DUGU



PROIEKTU UGARI ESKU ARTEAN

Vanpisoul izeneko zigiluak azkenaldian sortutako hainbat jazzfunk abestirekin Groovadelia bilduma atera berri du eta 'Dressin' the puppet' laneko pieza bat sartu dute. Diskoa Europa osoan hedatuko da eta The Cherry Bopperseko kideek bultzada hori baliatu nahi dute kontinente osoan beren izena zabaltzeko eta kontzertu batzuk lotzen saiatzeko. Pauso hori arrakastaz eman ahal izanez gero, 'Dressin' the puppet' ere Europako dendetara zabaltzeko aukera legoke. Azken finean, musika instrumentala egiteak hizkuntzak ezartzen dituen hesiak gainditzea errazten du. Beste proiektu bat ere badaukate esku artean. Binilozko single bat atera nahi dute 2007ko otsaila edo martxoaren bueltan, geroago aurkeztu nahi duten diskoaren aurrerapen gisa. Joan den mendeko 60 eta 70eko musikari beste omenaldi bat izango litzateke biniloa, izan ere, handia da garai hartako musika beltzari dioten mirespena.

eta emaitza duina izango zela eta elkarrekin gustura zebiltzala ziurtatu arte, ez zuten jendaurrean jo. Donostian, 2005eko udan eskaini zuten lehen kontzertua, arrakasta nabarmena lortuz eta, harrezkero, geratu barik dabilta. Donostiako Jaz-zaldian ere izan dira aurten. Mahatserrian, ordea, ez dute oraindik jo, baina beren asmoen artean dago auzokideen aurrean kontzertu bat egitea.

Doazen lekura doazela ere, ikusleak pozik geratzen dira The Cherry Boppersen emanaldiekin eta, ondorioz, kontzertu andana dituzte lotuta udazkenerako, Euskal Herrian ez ezik, Espainian ere bai. Esaterako, Madril edo Zaragoza bezalako lekuetan izango dira. Gugandik hurbilago, Bilbon bertan ariko dira urriaren 6an, Kafe Antzokian (urtarrilaren 18an ere areto berberera itzuliko dira), eta azaroaren 25ean Gasteizko Helldoradon ikusi ahal izango ditugu. Zuzeneko saioetan, bertsioez gain, beraiek




sortutako zenbait abesti eskaintzen dituzte, eta gitarra, saxo eta teklatuaren inprobisazio laburrak ere tar-tekatzten dituzte.

Musika estilo askotatik edaten dute, baina 'Dressin' the puppet' diskoan argi geratzen denez, jazzaren eta funkaren arteko nahastea da beren doinuen oinarri nagusia, jendea dantzan jartzea atsegin dute erritmo bizi eta jostagarrien bidez. The Cherry Boppersen berri ahoz aho hedatu da gehienbat eta boskotearen jazzfunk bizia, Euskal Herriko musikan kasik salbuespena, zale askoren ezpainetan dabil azkenaldian.

ANGEL ZELAIETA

"Euskal prentsan polemika falta da"

Mallabitarra jaiotzez, urte asko eman ditu Angel Zelaieta Santutxu aldean, orain asko ez dela Zazpi Kaleetara aldatu zen arte. Aurten hartu du erretiroa Lauro ikastolako irakasle gisa, bertan 33 urte egin ostean. Baina beste gauza asko egin ditu Zelaietak. Artikuluak eta liburuak idatzi, Arestiren biografiarik osatuena argitaratu, Anaitasuna aldizkaria zuzendu, Verdes liburutegian jardun...



*Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Derioko seminarioan abadegai egon zinen bete-beterik eta irakiten zegoenean...

Bai. Derioko ikastetxe horrek badauka hain ezaguna ez den alderdi bat. Eraikina aurretik eginda zegoen zoroetxea izateko. Baina bertan behera utzi zuten, teorikoek esaten zutelako zoroak hain pilatuta egotea ez zela egokia. Gerra amaitu eta berehala Bilboko elizbarrutia sortu zen. Indarra egin zutenak horretarako Real Sociedad Bascongada de Amigos del País en ingurukoak izan ziren. Konkretuki, Javier Ybarra Bergé. Jakina, elizbarrutiak bere seminarioa behar zuen eta Ybarrak zoroetxea eskaini zuen abadegai etxea izateko. Bertara ez ziren joan bere semeak, baserriko semeak baino, hau da, Euskal Herriak daukan ondare zahar eta tradizionala gerra osteko egoera hartan. Hori batetik, bestetik ere langileen semeak asko eraman zituztelako. 'El asfalto y el morokil' esaten zen orduan, brometan.

Baina planak okertu zitzaizkion...


Okertu... jakin beharko litzateke zein sentidutan. Baserriko semeak euskaldunak ginen, baina ez du esan nahi denak abertzale edo separatistak ginenik. Lehen meza euskaraz eman zuen tipoa Ybarra horren lagun-laguna zen. Francisco Ballesster izan zen. Gure belaunaldietan baserriar jende asko zegoen, euskaldun, euskaltzale agertu ginen zarataka eta erakargarritasuna bage-neukan: ikasleak ginen, euskaraz idazten eta berba egiten... Hori 1960 baino lehen. Gero ETA sortu zen, Jose Antonio Agirre hil zen, marxismoaren eragin handia zabaldu zen, ... frankismoaren akabera urteak ziren, gertaera latzak, ... Derion entzerronak egin genituen... Seminario barruan egondako jendearen artean batzuek urte haiek gogoratzen dituzte sufrimendu handiz. Nik, aldiz, gogo onez. Orduan irakasle izandako batzuekin tratua daukat oraindik ere eta inoiz hor ibiltzen gara konspiratzen.

Gaur egun zelan ikusten duzu Eliza?

Eliza instituzioa hustu egin da eta une honetan zahar jende asko dauka. Euren zeregin handienetako bat da zahar jende hori behar bezala zaintzea. Hala ere, Elizak pisua dauka, eragina dauka. Hor dago, ez dakit zertan. Zahartuta egoteak asko kondizionatzen du. Egunotan irakurri dut Sabino Arana Goiri Larrinagako kartzelan egon zenean, Begoñako abade bi bera ikustera joateko baimena eskatuta zeudela. Ez zieten eman. Hori irakurri dudanean, burura etorri zait De Juana Chaosen parrokoak ez duela eskatu bisitarik berarekin. Egia esan, ez dakit behar beste lan egin den horretarako. Baina hola dago. Une honetan bere irratia, COPE, alde batetik indartsua da, lan handia egiten dute, baina bestetik badakigu zelako asmoak eta pentsamenduak zabaltzen dituzten. Eta Bilboko go-tzaina da Espainiako Konferentzia Episkopalaren burua. Eta sinesmen aldetik, ni ez naiz Unamunoren edo Blas de Oteroren kasuan egon. Ez dut arazo ideologiko hori eduki: sinisten dudana ala ez. Ez dut uste oso-osoan inoiz sinistu dudarik eta ez dakit orain sinisten dudan. Irakurri egiten dut, baina kultura bezala.

Abadetu ostean, Etxebarriko San Antonion hasi zinen, etorkinak gehien etortzen ziren urteetan...

Bai. Gurrupide gotzainak Real Sociedad Bascongada de Amigos del País horiekiko joera zeukan. Gurekin ez zen ondo konpondu, hori egia da, guk haustura eskatzen genuen. Baina orduan Elizaren agintaritzaren intelektualean zeudenak ere ez ziren bere aldekoak, europazaleak ziren. Ikastolak legezkatzea, adibidez, Gurrupideren bidez egin zen. Gu abertzale erradikalok zuzentzeko, etorkinen auzoetara bidali gintuzten: Triano, Gallarta, San Antonio... Nik ez nuen sufritu batere. Etorkinen lurraldea zen orduan San Antonio, Etxebarriko beheko aldearen guztiz diferente. Orduan Bandaseko greba ezagutu nuen. Auzoko batzuk bertako langileak ziren. Euskararen arloan ere ezin geldirik egon eta auzoko ume batzuek lehen jaunartzea euskaraz egin zuten. Han ez zegoen horrekin problemarik.



Gaur egun etorkinak berriz ere agertu dira euskal gizartearen...

Nik uste dut egoera ez dela ordukoa. Askok aldatu da. Guk orduan holako prestigio bat geneukan. Jendea guregana etortzen zen. Ezer egiten bazen: taldeak, teatro taldeak, jaiak, ... gu puntan ibiltzen ginen. Lehengo baten Galdakaoko aldizkari bat eskatzeko korreo elektronikoa bat bidali nuen, euskaraz, eta erantzun didate erdara hutsez frankismoren gobernadore baten tankeran. Telebistan ere berdin. ETBko arratsaldeetako mahai inguruetan ikusten da nahiago dutela berba egin Galizako hurakanaz edo Bilbon autoak egon diren ala ez lehengo

egunean, edo Athletic, ... Ez dago goserik, animurik, audientziak jaitziko ote diren beldur dira, egunotako gai handiei heltzeko.

Abade izan zinen, baina baita kazetari ere. Anaitasuna aldizkaria hiru urtez zuzendu zenuen...

Anaitasuna hori ni baino aurreragoa da. Ikasle batek ikerketa gaitzat hartu du. 1959an Bermeon botatzen zuten Anaitasuna. Frantziskotarren esku zegoen. Urte hartan Fidelek boterea hartu zuen Kuban. Bertan ehunen bat frantziskotar zeuden. Portadan atera zuten 'Zer pasaten dan Kuba?' eta hamar bat artikulu publikatu zituzten, gehienak Batistaren kontra. Eta argazki baten ikusten

dira fraideak gerrillarekin. Aldizkari hori 1969an zorretan zegoen. Orduan gu borrokalariak ginen, zarata egiten genuen... eta etorri zitzaizkigun orduan aldizkaria botatzen zutenak, bilera batera deitu gintuzten eta esan ziguten ea aldizkaria hartuko genuen. Ni zuzendari izateko proposatu zidaten batzar hartan. Une zailak izan ziren eta aldizkaria atzeratu zen baina azkenean bota genuen. Han hasi ginen, euskara batuaren alde eta... Orduan batzuek esan zuten ETArekin kolpe bat izan zela eta beste aldizkari bat atera zuten. Han ibili ginen. Oso pozgarria izan zen, zelako zarata atera genuen...

Euskal prentsa idatzia gainera

garatu barik egongo zen...

Eragin handia izan genuen batez ere hizkuntza aldetik, euskara batua zabaldu zelako. Imanol Berriatuak artikulu guzti-guztiak hartzen zituen eta zuzendu egiten zituen, Arestirenak eta Mitxelena-renak ere! Arestik gero esan be egiten zuten: "Solo me ha corregido estas cosas!". Eta euskara batuaz gain, jarrera hausle eta borrokalari edukitu zuten aldizkariak. Indar handia hartu zuen. Adiskide asko eduki genuen. Han estreinatu zen idazle asko, orain idazle famatuak direnak, ... Euskara batua sortu eta handik gutxira hasi ginen Anaitasunarekin. Guk egia esanda idazten genuen ordura arte bezala: 'ikusi



geundenean Argia hartzen genuen deseatzen ea Arestik zer idatzi zuen... Orain ez dut uste hori dagoenik. Orain dotore idazteko gogo dago, baina polemika hori falta da. Prentsak ez dauka luma polemikorik.

Arestiren artikulu haiek irakurtzen zenuen pertsonalki ezagutu baino lehen?

Ezagutu baino lehen. Larrabetzuko seme batekin komentatu ohi nituen. Geroago ezagutu nuen. San Antonion abade nintzela bera Boluetako enpresa baten egiten zuen lan.

Aresti eta zu lagunak izan zineten. Zein izan zen bere eraginik handiena zugaran?

Trumoi bat izan zen, orokorrean eta niretzat. Anaitasuna botatzen genuenean, behin kalean topatu nuen eta galdetu nion: 'Azken zenbakian zelan?', eta erantzuna: 'Muy flojo'. Beste behin Azkueri esan zion: "ni Angelen anaia-rentzat poeta naiz". Kontatu nion behin anaia esan zidala: "hori zuen lagune, poeta dana edo". Berarentzat poeta, poeta zen, grekozko sentiduan. Asko irakurtzen zuen. Ez zuen filologia ikasi, enpresa baten egiten zuen behar, ... Oso pertsonaia indartsua. Lino Akesolorekin prentsan sekulako eztabaida gogorra eduki zuen. Nik pentsatzen nuen ez zutela gehiagotan elkarrekin berba egingo. Behin Lekeition hitzaldi baten elkartu ziren eta berbetan hasi ziren, oso pozik.

Gaur egun Aresti ondo ezagutzen dugu?

Gustuak aldatu egin dira. Gaurko Batxillerreko jendeari ematen diozu Arestiren poema bat eta, bueno, interesatzen zaie, baina ez gure denboretan bezala. Aresti geroan ere irakurri da baina gustuak ez dira berdinak. Mikel Zarete esan zidan Aresti ez zela geroan ezagutuko. Ez. Xarma zeukan eta edukiko du. Baina orduko bizitasun hori... Lehen esan duguna, uste dut gaur egungo jendeak ez duela polemika lehengoak bezala maite. Gainera bera, batez ere azkenerantz, marxista agertzen zen sentidurik zehatzenean. Klase sozialen borroka-eta... Horrek ere gaur egungo jendearen sentimenduetan orduan zeukan indarra ez dauka.

neban', 'esan neu-tson', ...

Hainbeste urte joan dira. Zelan dago euskarazko prentsa gaur egun?

Indartsu. Aldizkari piloa agertzen dira, eguneroko prentsa ere asko eta asko agertzen da, irakurtzen dugu... Beharbada, ez dut uste dagoenik garai baten egon zen bezalako polemikarik. Ez dago polemikarik eta ez dago jende indartsurik ohikoak ez diren gauzak esateko kapaz denik. Ez dago Arestirik, ez dago Saizarbitoriarik, ez dago Txomin Peillenik. Gehiago idazten da korrekzioz, ortodoxiatik. Ez dago indarrik. Seminarioan

Hamar galdera labur


Liburua: Sabino Aranaren lanak.
Filma: Viridiana.
Kantua: Lekeitioko estudiantinarenak.
Lekua: Clairvaux (Frantzia).
Izena: Aresti.

Mendia ala hondartza? Hondartza.
Jatekoa: Babak.
Kirola: Pala.
Zaletasuna: Internet irekitzea.
Ametsa: Sano bizitzea.

Zer pentsatu duzu Pluton planeten ataletik degradatu dutela jakitean?

UXUE (ELGOIBAR)

HOR IKUSTEN DA NOLA IDAZTEN DEN DENA. GUK IKASI DUGUN HISTORIA ERE BAT-BATEAN INOR AGERTUKO DA ETA ESANGO DU EZ DELA HOLA. DENA ERLATIBOA DA ETA IKASTEN DUGU BESTE BATZUEK GUK IKASTEA NAHI DUTENA.



JOSEBA (ETXALAR)

GEHIEN BAT KALTEA ESKOLA LIBURUAK EGITEN DITUZTENENTZAKO DA, ALDATU BEHAR DITUZTELAKO. ETA NEGOZIOA ARGITALETXEENTZAT. AZKENEAN TONTAKERI BATENGATIK DIRU GEHIAGO IRABAZIKO DUTE.


NAGORE (SANTUTXU)

DENBORA AUERRERA DOAN HEINEAN ESPERIMENTU GEHIAGO EGITEN DIRA ETA ORAIN ARTE FINKO-FINKO ZELA PENTSATU DUGUNA EZ DA IZANGO.



JAVIER (INDAUTXU)

HAINBESTE URTETAN PLANETA IZAN ETA GERO EZ DUT ULERTZEN ZELAN ORAIN BESTE ONDORIO BAT ATERA DUTEN. TEKNIKA GEHIAGO EGONGO DA ORAIN, MASA GUTXIEGI DAUKALA... BAINA ZER MASA BEHAR DA PLANETA IZATEKO?



MARISA (SANTUTXU)

TENTELKERIA. PLANETAK IKASTEKO KOMERIAK ETA ORAIN ALDATZEN DIZKIGUTE.



IGOR (SANTUTXU)

LOGIKO IKUSI BADUTE, ZIENTIFIKOEK ERABAKI BEHAR DUTE. BADI RUDI BERE TAMAINAKO BESTE SATELITE BATZUK DAUDELA. GUK BEDERATZI PLANETA ZIRELA IKASI BEHAR IZAN GENUEN. ORAIN ALDATZEN BADUTE, HOR KONPON!



GORKA (SANTUTXU)

NIK KONTU HORREN GAINEAN EZ DAKIT EZER ERE EZ.

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Castañoseko merkatuaren gainean hiru pisu gehiago altxatuko dituzte auzo-etxea egiteko

laz aurkeztutako proiektuan Bilboko Udalak solairu bakarra altxarazi nahi zuen

Bilboko Udalak urtea amaitu orduko hasi nahi ditu Castañoseko merkatua auzo-etxe bihurtzeko lanak. Eraikin zaharraren aurrealdea errespetatu egingo dute baina barrualdean bost solairu altxatuko dituzte. Merkatua pisu bikoia da, izan, eta ia beste pisu bat baino ez zutela altxatuko iragarri zuten, beste biak lur azpiko sotoak izango zirelako. Obra osoaren aurrekontua hiru milioi eurokoa da.

Zehatz esanda, Bilboko Udalak 3,168 milioi euroko aurrekontua kalkulatu du lanok egiteko. Hamazortzi hilabete beharko dituztela iragarri dute. Behin amaituta, auzo-etxe berria Castañoseko bizitza soziokulturalean "erreferentziatzeko topaleku" bihurtuko delakoan daude udal agintariak.

Kontua da ia jakinarazita proiektuaren eta oraingoaren artean aldeak badirela. Eta diferentzia horiek nabarmenak izango dira, eraikina guztiz itxuraldatuko dute eta. Castañoseko merkatua eraikin historikoa da, eta Bilboko Plan Nagusiak B mailako babes berezia eman zion, bigarren mailarik altuena hain zuzen. Iaz iragarri zuten proiektuak bost solairuko auzo-etxea zen, baina eurentariki bi lur azpiko sotoak izango ziren. Beste biak gaur egun merkatuak berak dauzkanak eta bosgarrena, berria. Beraz, altueran, pisu bat gehiago.

Bilboko Udalak irailaren hasieran onartutako proiektua guztiz bestelakoa da. Alde batetik, bost solairuko



ERAIKIN HISTORIKOA

Balio handiko eraikina da Castañoseko merkatua. Ricardo Bastida arkitektoak diseinatu zuen 1905ean garbitoki gisa. Estilo modernistan egin zuen. Castaños eta Muxika Butron kaleen arteko kantoiaren eraiki zuten. Geroago, barrualdea aldatu zuten garbilekua barik azokarena egiteko.

Castañosekoarekin batera, Bastidak San Mames kalekoa diseinatu zuen. Azken hori orain dela urte batzuk aldatu zuten: aurrealdea baino ez zuten mantendu, haren ostean etxe berri bat eginez. Beraz, Bastidaren lan biok berdin antzean amaituko dute.

eraikina altxatuko dute, jatorrizko aurrealdea errespetatuz. Baina, bestetik, ez dago sotorik. Beraz, lehen pisu bakarra altxatu behar bazuten, proiektu berriak hiru pisu eskatzen ditu. Are gehiago, aldaketa aprobetxatuz, azalera handiagotu dute Bilboko Udaleko agintariak. Iaz 1.250 metro koadroko azalera aipatu zuten eta orain 1.627 metro koadro aitortu dituzte. Gaur egungo merkatua 544 metro koadro zabal da.

Aurrekontuan ere aldaketa itzela ekarri du proiektu berriak. Iaz 1,8 milioi euro aipatu bazuten, aurten 3,168 milioi euroko gastua kalkulatu dute.

EDUKIAK

Beraz, merkatuaren solairu biak berreraikiko dituzte eta gainerako hiru pisuak hartzeko "kristalezko bolumen berri bat" altxatuko dute. Besteak beste, hitzaldi aretoa, adinekoezako egonlekua, erabilera anitzetarako gela, batzar aretoa, haur eta gazteentzako liburutegia, irakurtzeko gunea eta euskal txokoa atondu nahi dituzte bertan.

Mastieta baserria, erreta

Irailaren 12an ke zuri batek suaren berri eman zuen. Sugar handiek baserriaren etxebizitza bat zeharo suntsituta utzi zuten. Kasu honetan sua ez da berez sortu. Norbaitek hormatuta zegoen ate bateko zirrikietatik sua eta erregaia bota zuen.


Azkenaldi honetan inguruko baserri bi erre dira Begoñako errepublika zaharreko auzoetan. Oraingo honetan Landeta Bidean dagoen Mastieta edo Guardaviñas izan da. Bertan 22 urtez bizi zen Maria Angeles Baganek baserriaren historia laburtu digu. Bere lau seme-alaba bertan erditu eta hazi egin ditu. Duela 53 urte Zurbaránbarrira aldatu zen.



Duela ia hirurehun urte eraiki ei zuten baserria. Bertan Maria Angelesen amaginarrearen gurasoak hasi ziren bizitzen, errentan. Ugazaba, markes bat, Arriluzekoa antza. Hark orain mende erdi arte eutsi zion jabe-goiari. Gero, Bilboko Udalarekin zorrak zirela medio, baserria eta 5.000 metro koadroko lur sailak Zabala familiaren esku geratu ziren, gaur egun arte.

Mastieta edo Guardaviñas esan izan diote etxe horri. Antza, inguruko arloak mahastiz beteta egon ziren. Baserrian txakolina zen produktu nagusia. Korta eta sotoa ere bazeukan orduan.

Baina suak erre baino lehenago lapurretak izan dira bertan. Duela hiru urtetik hona baserrian ez zen inor bizi, bertako etxeko andrea alzheimerrak jota erresidentzia batera eraman zutelako. Egoera aprobetxatuz platerak eta bestelako gauzak ostu zituz-



Jakingarri bat aipatzeko ezin utzi: baserri erre zen orduan bertan, Trueba ikastetxearen beheko aldean (ikastetxetatik kanpo) sutea piztu zen.

ten. Andre horren loba bat, lapurretaz konturatzean, lehenengoz egurrez eta porlanaz gero, baserriko zuloak itxi zituen, lapurrak berriz sartu zirelako. Atea metalzkoa ipini zuten. Azkenean erasotzaileak, barrura sartu ezinik, soto aldeko leihotik erregaia bota eta su eman zion. Dena suntsituta geratu da, kanpoko hormak izan ezik.

Senideak hondakin guttiak zelan atera aztertzen dihardute, familiako baten batek berriz eraiki-tzeko asmoa baldin baleuka, egin ahal izateko.

Baserri joateko Lezamako Trenbide Zaharra kaletik edota Artxandatik egin zitekeen lehen. Egun, Udalak Artxandako magaletan zehar zabaldutako basabidetatik ere egin daiteke. Baina basabide horietako bat ez da oso legezkoa. Izan ere, baserriaren lurretatik doa, baina jabeari inolako azalpenik eman barik eraiki zuten bere egunean, eta gainera, trukean ezer ere ez eman barik. Suteak mozteko balioko zela izan zen azalpen bakarra. Azken urtetan egon diren suteak, ia batere ez, eta ironiak bere papeira bete du hontan: suak baserria eraitsi du ia-ia.

ERIKARRIAK

ERIKARRIAK

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos Instalador
Presupuestos Autorizado

J. Ruiz

*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones
*Acumuladores, tarifa nocturna y calefacción bajo consumo
*Porteros automáticos y videopuertas
*Aire acondicionado

Juan de Gissalla nº9, Loria, 48004 Bilbako. Fax: 944111652-944656703855

BI-96.0-FM

Bilbo Hiria irratia

www.bilbohiria.com

URRIA (11-15)

PARIS	159 Euro
LISBOA	199 Euro
SEVILLA	179 Euro
SALOU	126 Euro
TORREMOLINOS	131 Euro

mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak

GRUPO STAR
www.ibiltari.com
Iburriaga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 28
48004 SANTUTXU - BILBO

★
KAIKU
Munduko Herrien Batea

Arsuaga 1 Santutxu

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

ADIASESORIA
FISCAL · CONTABLE · LABORAL
ARBEKO · MERKATU

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza



BERBALAGUN EUSKALDUNAK BEHAR DIRA.-

Euskara praktikatu nahi dutenei aukera ematea da Berbalaguna proiektuaren helburu nagusia. Iaz 120 lagun sartu ziren taldeetan, AEK eta Asapalaren eskutik. Urrian berriz ere martxan jarriko dute eta eskaera ikusita euskaldun gehiago behar dituzte euskaldun berriekin berbetan egoteko. Boluntarioak izan nahi dutenek dei dezatela Asapalara (944735448).

PRESOEN EGOERA SALATZEKO SABOTAJEAK.-

Irailaren 25eko iluntzean kaputxadun talde batek barrikadak paratu zituen Santutxuko Iturriaga kalean eta su eman zion Banestoko kutzazain automatikoari. Ezezagun batek erasoak errebindikatu zituen Iñaki de Juana presoaren egoera salatzeke egin zutela argituz. Alderdi politiko gehienek sabotajea gaitzetsi zuten.



URIBARRIKO JAIAK.-

Irailaren azken asteburu bietan Uribarri jaietan murgildu da. Hamaiaka ekitaldiren artean, bakailao txapelketa egin dute. Abasolo txakolindegiko zuhaiztarian Uribarriko Oskitar nagusitu zen, bigarren lekuan Betikokak koadrila eta atzerago Asier (hirugarren) eta Lopa (laugarren). Argazkian, epaileak, Moskotarra-keko Pedro eta Txomin Barulloko Leo, beharrean.

Bilboko Udalak Begoñako kanposantua zarratuko du parke bat egiteko

Hamar urte pasatuko dira hilerria itxi arte

Bilboko Udalak Begoñako kanposantua ixteko erabakia hartu du. Hamar urte gehiago emango ditu, hala ere, oraindik ere zabalik, bertako hilobi batzuen eskubideak iraungi arte. Ondoren, parke bat atonduko dutela agindu dute udal agintariek.

Irailaren 8an batzartuta, Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak Begoñako kanposantua ixteko agindua eman zuen. Aurrerantzean, ez dute gorpurik lurperatuko hilerri horretan. Erabaki horrek historia luze baten amaiera ekarriko du. Izan ere,



Edozelan be, hilerriaren orubea ezingo da beste ezertarako erabili datozen hamar urteotan, azken lurperatzeari dagokion legezko tartea horixe da eta.

Begoñako kanposantuan 193 kontzesio daude. Horietatik 124 iraungi egin dira, hartu zuten egunetik 99 urte pasa direlako. Gainerako 69etatik gehienak datozen hamar urteetan iraungiko direla jakinarazi du Bilboko Udalak. Edozelan be, gutxi dira ondo kontserbatuta dagoen hilobiak. Udal agintariek iragarri duteenez, bertako ugazabei erraztasunak emango dizkiete Derioko hilerria aldatzeko.

Bestalde, lurreko 2.000 hilobi inguru ere badaude Begoñako kanposantuan. Horietan, azken ehorzketak 1943an egin zituzten.



XIX. mendean hasi ziren Begoñako kanposantu hori erabiltzen.

Gaur egun 10.000 metro koadro zabal da orube hori eta etxebizitzetaz inguratuta dago, Begoñako basilikatik hur, kaltzaden ondoan. Batez beste, urtean hamabi lagun lurperatu ohi zuten hilerri horretan.

Bilboko Udalak jakinarazi duenez, itxiera eskaria Servicio Funerarios de Bilbao enpresak egin du. Berau da Bilboko kanposantuen ardura daukana. Begoñako ehorzketak Derioko hilerria eramatea proposatu zuen. Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailak oniritzia eman ostean, behin betiko itxiko dute kanposantua.

EUSKAL TONBOLA Euro baten truke mila sar!!!

bai euskarari

TXINARAKO bidaiak

EROSKI bidaiak

Arzak

Atzerago DVDak

Txartelak salgai Bizkaia osoko tabernetan

KONTSEILUA

1€



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:

Abizenak:

Kalea: Zenbakia:

Herria: Herrialdea:

Telefonoa:

Bankua:

Kontu zenbakia (20 digito):



SAIBI (946 M.) INDUSI (DIMA)

Gure ibilaldia Diman hasi arren ez da Dimako plazan hasiko, Indusi auzoan baizik. Beraz, Dimako erdigunetik bost kilometrora.


Lehenago eta behin, baserri batzuk ikusiko ditugu eta errepide ondoan, eskuin aldean, taberna duen etxe bat (Olabari auzoan). Errepideak hiruhunen bat metro jarraitzen du aurrerantz. Guk Zamakolara doan bidea hartuko dugu ezker aldetik eta handik Landaxuetaraino. Hantxe bertan erreka bi batzen diren lekuan utziko dugu autoa, lau baserriren artean.

Ezkerrean asfaltaturik gabe dagoen basabidea edo pista hartuko dugu; hasieran aldapa leuna da, baina gero eta gogorragoa dela nabarituko dugu. Hamar minutura borda bat aurkituko dugu bide ondoan, ia erorita dagoena. Basabide beretik jarraituko dugu eta hogeitatu minutura beste borda bat ikusiko dugu. Badirudi aldapa amaitzen dela, baina ez da horrela, bost bat minutu ibili eta gero berriro hasten baita.

Handik aurrera gogorragoa izateaz gain, biraguneak (errebueltak) ditu. Leku horretan ubide bat ikusten da (Dimara ura daroana), eta laster baserri bateraino helduko gara (Txikolizelorrjeta).

Ekarri dugun basabideak baserria inguratu eta ezkerretik jarraitzen du. Nahiz eta posible izan hemendik joatea, guk baserriaren eskuin aldetik eta iturriaren ondotik gorantz doan bidexka hartuko dugu, harkaitz batera heldu arte, beti ere pinu eta pago artean. Handik, beti gorantz eta ezkererantz joan beharko dugu pinudi bat topatu arte (Monakartza, -700 m.-).

Han bertan, basoaren soilgune handi batean, basabide batzuk ikusiko ditugu, baina guk ezker aldean dauden artean erdikoa hartuko dugu. Hiruhun metro igota, beste soilgune batera helduko gara. Basabide nagusia



apur bat eskuinerantz dago, Saibiko magalera eramango gaituena. Han ezkerretik Iturriotz izeneko toki polita dago. Borda batzuk ikusiko ditugu bertan.

Azken zatia egingo dugu ondoren. Gogorrena, zalan-tza barik. Saibiko gurutzera eramango gaitu. Azken aldapa horrek hogeitatu minutu beharko du. Ibilaldiaren denbora guztira bi ordu eta laurden izango da gutxi gorabehera.

IRUDIA SORTZEN DUGU BILBO
 Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Spedro
 Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navogalia.com

HORTZ KLINIKA GERMÁN BERGARETXE
 GABRIELARESTI, 30 4. G
 TXURDINAGA
 94 412 82 74

MESÓN BURETXE
 Santutxuko poteo gunean

HAMAR IKASLE BERRIETATIK SEIK EUSKARA HUTSEZ IKASIKO DU

Bilbo osoan ere, hiru urteko umeen erdia D ereduan aurre matrikulatu ziren



Irailaren bigarren astean hasi ziren eskolak gure ume txikerrenentzat. Urteroko legea betez, belaunaldi berri bat heldu da ikasgeletara. Hiru urteko ume horien aurrematrikulak kontuan hartuta, iazko joera indartu egin dela esan dezakegu: gutxika-gutxika bada ere gero eta gehiago dira euskaraz ikasten dutenak. Aurten hamar ume berrietatik seik euskara hutsez ikasiko dute (D eredia), beste lauak lerro elebidunetan (B eredia) egongo diren bitartean.

Jakina denez, hiru urtetik aurrera irakaskuntza derrigorrezkoa da gurean. Gure herritarren joerak norantz doazen jakiteko asmoz, urtero-urtero aurre matrikulazio datuak argitaratu ohi ditugu BERTON aldizkari honetan. Eta aurtengoak esanguratsuak dira. Alde batetik, iaz baino ume berri gutxiago dago -lehenago urte-

tan baino gehiago, hala ere- eta, bestetik, D eredu euskaldunak aurre matrikula gehiago batu ditu.

Horren ondorioz, aurten Begoñako errepublika zaharreko auzoetan hiru urteko umeen %57,6 euskara hutsez ikasiko du. Iaz %54 izan ziren eta orain dela urte bi %51. Sasoi hartan, 2003 eta 2004

urteetan D ereduaren etengabeko hazkundeak eten txiki bat eduki zuen baina, portzentajeek argi erakusten dutenez, azken urte biotan gorakada polita izan da.

Zenbakitan, aurten 514 aurrematrikula batu ditu D ereduak, iaz baino zazpi gehiago. B eredu elebidunak, oster, 350 umeren eska-

Hiru urteko umeen aurrematrikulak Begoñako errepublikan eta Bilbon

Eredu/urte	Mahatserrria					Bilbo			
	2002	2003	2004	2005	2006	2003	2004	2005	2006
A eredia	60	45	35	33	28	281	221	206	163
B eredia	355	389	399	403	350	1.160	1.201	1.163	1.142
D eredia	469	479	459	507	514	1.158	1.149	1.301	1.342

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza saila.

Hiru urteko umeen aurrematrikulak barrutika

Eredu/urte	Uribarri					Otxarkoaga-Txurdinaga					Begoña				
	02	03	04	05	06	02	03	04	05	06	02	03	04	05	06
A eredia	23	3	0	0	0	33	40	35	33	28	4	2	0	0	0
B eredia	170	172	179	170	164	63	81	71	74	56	122	136	149	159	130
D eredia	136	143	144	159	164	233	250	228	244	235	100	86	87	104	115

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza saila.



ria hartu du, 2005ean baino 53 gutxiago. Horiek hiru urteko sein mahatsorrien %39,2 dira. A ereduak, azkenik, hil aginean jarraitzen du, noiz kenduko duten zain. Aurten 892 umeetarik 28 baino ez dira lerro erdaldunetan izena emanda daudenak.

AUZOKA

Barrutika aztertu ezker, datuok ere esanguratsuak dira. Alde batetik, Uribarrin D ereduak B ereduak beste aurrematrikula lortu du. Lehenengo gertatu da hori. Azken urteotan hazkunde itzela lortu dute lerro euskaldunek Uribarrin, Mati-

kon, Zurbaranen eta Zurbaranbarrin.

Txurdinaga eta Otxarkoagako barrutian, oster, D eredia da erabat nagusi, alderdi horretako ikastola handiei esker gehien bat. Eredu elebidunak indar txikia dauka bertan. Eskola erdaldunak, azkenik, bertan dauka bere ikasle berri bakarrak. Aipatu barik laga dugu Txurdinagako alemaniar ikastetxea, Bizkaiko bazter askotako ikasleak erakartzen ditu-eta.

Begoña-Santutxu barrutian, azkenik, B ereduak bere nagusitasunari eutsi dio, baina D eredu euskaldunak aldeak laburtu ditu.

BILBON ERE, GUTXIKA-GUTXIKA AURRERA

Bilbo osoko hiru urteko umeetatik erdiak D ereduan ikasiko du ikasturte berri honetan. Azken urte biotan lerro euskaldunek 200 ikasle berri irabazi dituzte eta, horri esker, B eredu elebidunari nagusitu zaio. Azken horrek umeak galtzen jarraitu du, eta aurren %43 bildu du. A eredu erdaldunak, azkenik, aurrematrikulen %6 baino ez du lortu. Bilboko 2.647 umeetatik 163 alegia.

D eredia aukeratuena izan da Otxarkoaga-Txurdinagan, Zazpi Kaleetan, Errekalden eta Basurtu-Zorrotzan. Uribarrin be bai, esan legez, B ereduarekin batera. Azken hori Deustuan, Begoñan eta Abandon nagusitu da. Abandonoko kasua bitxia da, barruti horrek batu baititu A ereduko aurrematrikulen gehiena (104). Hala ere, B eta D ereduak askoz babes sozial handiagoa daukate bertan: 350 ume B ereduan eta 162 D ereduan.

JOSUNE BEREZIARTUK ZABALDUKO DU BIDAIARIEN TXOKOA

URRIAN ZEHAR LAU BIDAIARIK EUREN ESPERIENTZIAK KONTATUKO DITUZTE BEGOÑAKO UDALTEGIAN



Josune Bereziartu eta Rikar Otegi

Josune Bereziartu eskalatzaileren hitzaldia izango da aurtengo Bidaiarien Txokoa zabalduko duena. Urriaren 4an agertuko da orain gutxi Arco Rock Legend saria jasotako emakume hori, Rikar Otegirekin batera. Hurrengo asteetan Etiopia zeharkatuta dauden Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal, bost kontinentetan barrena ibilitako Jose Eladio Santacara eta Mongolia zaldiz bisitatu duen Angel Cuerdo etorriko dira. Hitzordua Begoñako udaltegian paratu dute.


Azken urteotan bezalaxe, aurrean ere urria bidaiarien hilabetea izango da Begoñako udaltegian (Txurdinagako kiroldegia ondoan). Alde batetik, erakusketak -hiru- eta postal lehiaketa; bestetik, bidaiak prestatzeko tailerrak eta, erakargarriena, astean hitzaldi eta ikus-entzunezko bana.

Zikloaren inaugurazioa Josune Bereziartu gipuzkoar eskalatzaileren esku geldituko da. Urriaren 4an egingo du, arratsaldeko zazpi eta erdietatik aurrera. Erdarazko berbaldia izango da, 'Escaladas y montañas: mi mundo interior' izenburupean. Berarekin batera Rikar Otegi ere etorriko da.

Josune Bereziartu munduko emakume eskalatzailerik onenetako bat da. Kirol ibilbide luzea eginda dago lazkaotarra. 1990ko hamarkadan hasi zen nabarmentzen eta harrez gero marka ikaragarriak lortuta dago. Besteak beste, gizonen marken bat ere hautsi zuen. Sariak be hainbeste jaso ditu, baina guztietan garrantzitsuen irailean bertan eman diote, Arco Rock Legend saria, eskalatzailentzat Oscar baten parekoa.

ETIOPIA ETA MONGOLIA

Hurrengo hitzaldietatik bat izango da euskaraz. Urriaren 25ean Angel Cuerdo 'Mongolia zaldiz' ikus-entzunezkoa eskainiko du. Estepa zabaletan zehar zabaltzen da Mongolia



Angel Cuerdo Mongolian

eta bertako bizilagun asko oraindik ere nomadak dira, alde batetik bestera zaldiz joaten direnak. Lur haietan barrena ibili zen Angel Cuerdo, zaldiz estepatik eta gameluz Gobiko basamortutik, mongol janzkera tradizionala jantzita. Bakar-bakarrik egin zuen bidaia kitzikagarri hura.

Hitzaldi guztiak eguaztenetan izango dira. Urriaren 11n Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal etorriko dira 'Caminando por Etiopía' berbaldiarekin. Afrikako bihotzean egindako egonaldia edukiko dute hizpide. Gainera, argazkiez ederto hornituta ailegatuko dira. Izan ere, Bidaiarien Txokoaren hiru erakusketarik bat euren da, 'Bestelako Etiopia, bitxia eta ezezaguna' lelopekoa. Hilaren 16tik 31 bitartean edukiko dute ikusgai Begoñako udaltegian bertan.

Urriaren 18an Jose Eladio Santacara bidaiaren txanda iritsiko da. Zarrakazteluko (Nafarroa) gizon horrek bidaiak eta

musika batu ditu mundu osoari bira emateko orduan. 'Ibiletxe' izenez bataiatu duen kamionetan ibili da bost kontinentetan barrena.

POSTALAK

Esan legez, hitzaldiez gain, badira beste kontu batzuk Bidaiarien Txokoaren gerizan. Alde batetik, erakusketak. Etiopiaren gain, beste batek zelta mundua hartuko du gai nagusitzat. Eta hirugarrena postal lehiaketako irudiez osatuko dute. Denetara 27 postal jaso dituzte eta irabazlea Eugenio Lasarte izan da, Istanbulgo meskita baten postalari esker. Irudi guztiak urriaren 15a arte izango dira ikusgai.

Bestalde, egunokaz martxan jarri dituzte bidaiak zelan antolatuko ikasteko eskolak. Bertatik aterako ote dira urte batzuk barruko bidaiarien txokoko hizlariak?

ANGEL
 HARATEGIA - URDAITEGIA
 Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe
 Mañari
 Médico M. Pedro Cortés, 9
 48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33

GOJIAN S.C.L.
 LAN BERTIKALAK
 Pintura lanak etxaurre eta patioetan
 Ke-irteerak eta Ur-hodiak
 Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
 630 08 09 38
 659 45 16 22

B I D E A K

B I D E A K

horoskopoa

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Zizareak lez, lurretik arrastaka ibili behar dozu? Altxa burua eta ibili munduan!

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Peoi gisa lan egiteko master bi eginda zagoz. Noiz hasiko zara behar?

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Oraindik maiteminduta? Ai, txolin hori! Udako gau baten akordiarekin konformatzen bazara...

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Eskapadatxo bat dekozu buruan. Bai, egin, egingo dozu. Noiz? Berandu baino lehen.

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Bai, errua txa-txa-txarena izan zan. Hori erretolika hori ez jatzu balioko, ez horixe...

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Jamaika aldean zure begira dagoz. Joateko asmotan zabilz ala?

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Lagunak gure bizitzako parterik inportanteenetakoa dira. Baina beti-beti ez jake kasurik egin behar...

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Gautxori onenaren saria emongo dotsue laster. Ilundu artean ez ei dozu etxetik urteten...

Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Egia esanda, horregaz ez dekozu zer eginik. Baina erreparatu ondo inguruan, beste inor badagoelako...

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Hasi behar dozun ikastaro horrekin pozarren ibiliko zara. Bizitza barri baten hasiera izango da. Edo ez.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Zurrumuru bat zabaldu da: ez ei dozu errondarik ordaintzen. Hain karu jarri da zeure hipoteka, ala?

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Iaz lider hasi eta azkenaurreko jardunaldian salbatu. Aurton, azkenak hasi eta... lelengoak amaitu? Baietz txanpions ligerako sailkatu!

agenda

APIRILAK 1URRIAK 5
'KUTSIDAZU BIDEA IXABEL'
PELIKULAREN AURKEZPENEA.
KAFE ANTZOKIA. 22:30EAN.

URRIAK 6
PRESOEN ALDEKO MANIFESTAZIOA.
HERRIAR PLATAFORMAK DEITUTA.
20:00ETAN. RITXI PLAZA.

URRIAK 6
KONTZERTUA. THE CHERRY BOPPERS
ETA THE SINCLAIRS.
KAFE ANTZOKIAN. 22:00ETAN.

URRIAK 8
MENDI IRTEERA. SARASTARRI (996 M.)
ATAUN. SANTUTXU MENDI TALDEAK
ANTOLATUTA.

URRIAK 11
KONTZERTUA. PANTXOA ETA PEIO.
ARRIAGA ANTZOKIAN. 20:00ETAN.

URRIAK 12-15
MENDI IRTEERA. EUOPAR
MENDILERROA. ATERPEA SOTO DE
SAJAMBREN (ASTURIES). 70 EURO.
LIZARDI MINTZA TALDEAK
ANTOLATUTA.

URRIAK 13-14
KONTZERTUA. PABLO MILANES.
ARRIAGA ANTZOKIAN. 20:00ETAN.

URRIAK 26
ANTZERKIA OTXARKOAGAN.
MEDIOMETRO TEATRO 'MEDIOMETRO'.
AUZO-ETXEAN. 19:30EAN.

URRIAK 26-27
KONTZERTUA. RUPER ORDORIKA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

Euskera praktikatu gura duzu, baina aukerarik ez....

Euskera ikasten dabilzanezi lagundu gura diezu eta astean behin ordu bete libre daukazu.



eta berba egiteko prestatu!!

Hemen:

Iturriaga 55, baxu ezkerre

☎ 94.473.54.48

e-posta: asapala@euskalnet.net

Santutxu **æk**
Euskal Eskola

ASAPALA
EUSKARA ELKARTEA